

FRANCISCA DE ACULODI

Sariaren VII Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren VII. Edizioaren —2019/2020 ikasturtea— Artea eta Giza Zientziak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 8 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako bi lan hauei ematea erabaki du:

Euskaraz:

HIZKERA INKLUSIBOA, ORAINGO ITZULTZAILEEN ERRONKA: TESTUINGURU TEORIKOA ETA EUSKARA-GAZTELANIAKO ITZULTZAILEEN JARDUNA

Gaztelaniaz:

CENA DE FAMILIA

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiek 2021eko otsailaren 15a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-vii-edizioa> orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

Sonia Morentin Gual

Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua (Letren Fakultatea)

Tutorea: Bego Montorio Uribarren

HIZKERA INKLUSIBOA, ORAINGO ITZULTZAILEEN ERRONKA: TESTUINGURU TEORIKOA ETA EUSKARA-GAZTELANIAKO ITZULTZAILEEN JARDUNA

LABURPENA:

Gradu amaierako lan honek hizkera inklusiboa hartzen du ardatz, baina nire ikasketen muina den itzulpengintzaren ikuspuntutik begiratuta. Gaurkotasun handiko gaia da, eta adituen hausnarketa eta ikerketez gain, ugariak dira hizkera inklusiboa erabiltzeko gidak eta arauak. Itzulpengintzan duen eraginaz ere hausnartu eta idatzi izan da, baina uste dugu euskal itzulpengintzan gutxi aztertu dela gaia, eta hutsune hori betetzen lagundu nahi du, bere txikian, lan honek.

Lan honen xedeak hizkera inklusiboak duen garrantzia aztertzea, itzulpen arloan duen eragina ikusaraztea eta euskal itzulpenean duen tokia aztertzea dira.

Gaiaren alde teorikoak errebasatzeaz gain, landa lana ere egin nahi izan dugu, egungo itzultzaile eta itzultzailegaien gogoeta eta praktika aztertzeko, beraz, bi atal nagusi ditu lan honek, teorikoa eta praktikoa. Atal teorikoan, hizkera inklusiboa kontzeptuari eta horren erabilerari buruzko erreferentziak aztertu ditugu, nazioartekoak nahiz euskaldunak, eta arazo gehien planteatzen dituzten ezaugarriak aipatu ditugu.

Horretaz gain, itzulpen jarduna orokorrean aztertu dugu, itzultzaileek xede testuan duten eragina ulertzeko, eta horrela, atal praktikoa bilduko ditugun datuak modu egokian interpretatzeko beharrezkoak diren kontzeptuak finkatzeko.

Atal praktikoa, euskal itzultzaileek gaiarekiko duten jarrera ezagutu nahian, zuzenean haien jarduna aztertzea erabaki dugu; zehazki, EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua euskaraz ikasten duten bigarren, hirugarren eta laugarren mailako ikasleena, horiek izango baitira hurrengo itzultzaile belaunaldiak, eta EIZIEko kide diren itzultzaile profesional batzuenak. Bi ariketa praktikoa planteatu genizkien hizkera inklusiboa erabiltzeko joera duten egiaztatze, eta gaiaren inguruan duten iritzia ezagutzeko. Alde batetik, testu bat euskaratik gaztelaniara itzultzea eskatu genien, eta ondoren inkesta bati erantzutea. Jasotako emaitza guztiak aztertu eta alderatu ondoren, ondorio batzuk atera ditugu.

Ondorio orokor horiek azaldu ondoren, lanerako erabili ditugun erreferentzia bibliografikoen zerrenda agertzen da, eta atal praktikoa burutu ahal izateko erabili dugun materiala eskuragarri jarri dugu eranskin gisa; hain zuzen ere, EHUko ikasleei zein itzultzaile profesionaleri bidalitako itzulgaia eta bete beharreko inkesta.

Gaztelaniaz eginiko lanaren irabazlea:

Noemí Morcillo Rodríguez

Sorkuntza eta diseñuko gradua (Arte Ederren Fakultatea)

Tutorea: Cristina Miranda de Almeida De Barros

CENA DE FAMILIA

LABURPENA:

Mi proyecto consiste en la elaboración de un juego de cartas dirigido a jóvenes entre 12 y 16 años para visibilizar los micromachismos. Estos han sido recogidos de mi experiencia personal, artículos de prensa, lecturas especializadas y una pequeña encuesta.

El juego está compuesto por 60 cartas con una ilustración representando lo que podría ser un micromachismo (50 lo son y 10 no). Los jugadores deben debatir sobre lo que ven para decidir si lo es o no, lo cual favorece el inicio de una conversación sobre el alcance del patriarcado en las distintas escenas que se representan. Las cartas que no representan ningún micromachismo ayudan a que los jugadores mantengan la actitud crítica y se interesen en conocer la razón por la que cada micromachismo es dañino.

Las cartas están clasificadas en cinco grupos según el área de la vida en la que encajan (pareja y amigos; general; infancia y adolescencia; profesional y familiar) con cinco colores para distinguirlos. En cada turno se descubre una de las cartas y tras debatir cada jugador debe decidir si se atreve a continuar jugando o se retira. Si un color se repite tres veces durante una misma ronda los jugadores que no se hayan retirado pierden y son penalizados.

En el reverso de cada carta hay un código QR que enlaza con un artículo en la página web del juego, construida durante el TFG como apoyo didáctico, para explicar los micromachismos y ampliar la información con enlaces a artículos relacionados. Cada código QR es distinto y conecta con el artículo específico de cada micromachismo estudiado.

Por medio de algo lúdico y social como un juego de mesa es posible llegar a un público más inaccesible de un modo distinto al que proporcionan las lecturas académicas sobre el tema.